

ONGI ETORRI JAIOBERRI BIENVENIDA/O!

BIENVENU·E!
BENVINGUDA / BENVINGUT!
BENVIDA/O!

ابحرم

BINE-ATI VENIT!
ДОБРЕ ДОШЪЛ!
BEM VINDA/O!

欢迎!

WELCOME!
ЛАСКАВО ПРОСИМО
ALI CHAMUSHKA KARAY
;SUMA KUTUQT'ATÄTAWA!
DALAL DIAM

دی دم آشوخ



Belaunaldi
berrien aukera
La era del
eusquera



“ ZORIONAK! ¡Felicidades por el nacimiento de tu bebé!”

Félicitations pour la naissance de votre bébé!

[atxikirik dauden JPG artxiboen arabera]

Felicitats pel naixement del teu nadó.

Felicitări pentru nașterea copilului tău!

Parabéns polo nacemento do teu bebé.

Поздравления по случай раждането на твоето бебе!

Felicidades pelo nacimiento do teu/ tua bebé!

Поздравления по случай раждането на твоето бебе!

Congratulations on the birth of your new baby!

Kikimba wawakuta wacharishkamantami kushikunchik!

¡Wawama yuritapata jallallt'atätawa!

Mangi lay ndokel ci dioudou sa liirbi

عزرك عورش مل حرم ارسود روا
اعد يس تمب عىل عك



Belaunaldi berrien aukera
La era del euskera

Argitalpen honetan familian euskarari ematen ahal zaion presentzia eta erabileraren inguruko proposamenak aurkituko dituzu.

En esta publicación encontrarás propuestas sobre la presencia y uso que se le puede dar al euskera en la familia.

AURKIBIDEA | ÍNDICE

Hizkuntzak: familiaren eta ingurunearen garrantzia	5
Idiomas: la importancia de la familia y el entorno	6
Umearen garapen linguistikoa lehen hilabeteetan	9
El desarrollo lingüístico de tu bebé	10
Etxeko bertze helduek euskaraz (ongi) ez badakite edo ikasten ari badira	13
La presencia del euskera en casa, aunque no lo sepáis (bien) o lo estéis aprendiendo	14
Epe laburrean hartu beharreko erabakiak	17
Decisiones a corto plazo	18



HIZKUNTZAK: FAMILIAREN ETA INGURUNEAREN GARRANTZIA

Ume txikiaren etorrera garai polita da. Eta une aproposa da, besteak beste, etxeko hizkuntza ohi-
turei buruz hitz egiteko eta etxean euskarari eman nahi zaion presentziaz eta garrantziaz erabakiak
hartzeko. Pentsatu al duzue inoiz umea nolako hizkuntz ingurunean hazi nahi duzuen?

Umearentzat familia lehen sozializazio gunea da, eta urte batzuetan garrantzitsuena. Familiako
kideekin emanen du denbora zati handiena eta bertan bereganatuko ditu hainbat ohitura, jokabide eta
balio. Baita hizkuntzei dagozkienak ere. Gai hauetan guztietan, gurasoak eta etxeko helduak haientza-
ko eredu eta erreferente zarete. Horregatik, etxean nahiz etxetik kanpo ahalik eta egoera gehienetan
euskara erabiltzen baduzue, umeak hizkuntza ikasi eta erabiltzeko ohitura eta atxikimendua beregana-
tuko ditu.

Jakina, euskara etxean ikasteaz gainera, eskolan ere ikasiko du, eta bizitzan ere bai. Gure eskual-
deetan haurrek aukera ugari dituzte era anitzetako jarduerak eta harremanak euskaraz izateko.

Munduan 6.000 hizkuntza inguru hitz egiten dira. Migrazioen ondorioz, euskara eta gaztelaniaz
gain, gero eta hizkuntza gehiago entzuten dira gure herrietan. Hizkuntz aniztasun hori aberastasun
kulturala da eta hori zaindu eta bultzatu behar da. Euskaraz hitz eginez eta biziz aniztasun hori babestu
eta elikatu egiten dugu. Zure umea euskara ardatz eta abiapuntu duen eleaniztasunean heztera gonbi-
datzen zaitugu.

IDIOMAS: LA IMPORTANCIA DE LA FAMILIA Y EL ENTORNO

La llegada de tu bebé es un buen momento para hablar sobre los hábitos de la familia, y también para reflexionar sobre el uso y la presencia de los idiomas en ella. ¿Has pensado alguna vez sobre el entorno lingüístico en el que quieres que crezca tu bebé? ¿Has pensado el lugar que tendrá el euskera en su vida aunque tú no lo sepas (bien)?

Durante los primeros años de tu bebé, la familia será su principal espacio de socialización, en el cual adquirirá conocimientos, hábitos y comportamientos en muchos ámbitos. También en el lingüístico: además de aprender el idioma/los idiomas de la familia, interiorizará los hábitos de uso y el valor que se les da. Para tu bebé eres la principal referencia, el modelo a seguir, también en cuanto a las actitudes y comportamientos que tomes respecto de las lenguas.

Aunque tú no sepas (bien) euskera, puedes influir para que tu bebé lo aprenda y esté presente en su vida cotidiana, y así sea un idioma cercano desde el principio. Más adelante se podrá escolarizar en euskera (modelo D). Además, en nuestra comarca tendrá la oportunidad de disfrutar de multitud de actividades extraescolares, culturales y deportivas en euskera, así como de relacionarse con sus amistades o con la gente del pueblo en ese idioma. Aquí el euskera es una lengua viva y su uso está muy generalizado, más aún entre las generaciones más jóvenes.

En el mundo se hablan en torno a 6.000 lenguas. Debido a los movimientos migratorios, en nuestros pueblos cada vez vamos oyendo más idiomas. Por tanto, esa diversidad es cada vez más latente, y conviene protegerla y potenciarla. En estas comarcas, el euskera es la lengua propia, a la vez que es parte de ese patrimonio lingüístico. Ofreciendo a nuestras hijas e hijos la oportunidad de que crezcan en euskera estamos promoviendo esa riqueza.





UMEAREN GARAPEN LINGUISTIKOA

Umeari etxera iristen den une beretik hitz egiten zaio, haurdunalditik ere bai. Berebiziko garrantzia dute gurasoek umeari egiten dizkioten lehen hitz horiek. Izan ere, hasierako hitz horietan erabiltzen den hizkuntza izanen da segur aski gerora gurasoek umearekin erabiliko dutena.

Hizkuntza batez jabetzeko eragina du hizkuntza horretan pasatzen den denborak. Zenbat eta denbora gehiago pasa hitz egiten eta entzuten, hobeki ikasiko da. Hortaz, komeni da haurrak hasieratik euskararekin harreman aberatsa izatea, euskara erabiltzeko aukera ugari ematea eta ahal den neurrian kalitateko eredia eskaintzea.

Jolasa eta kantua horretan lagungarri izanen dituzue. Umearentzat baliabide ezin egokiagoak dira, ez bakarrik dibertitzeko eta beren ingurunea ezagutzeko, baita euskara barnerratzeko eta garatzeko ere.

Batzuetan zalantza izaten da umeari norbere euskalkia edo euskara batua transmititu behar zaion. Bertako hizkeran aritzeko ohitura baduzu, umeari aldaera hori transmititzea aberasgarria da. Bertakoa ez den beste euskalkiren batean hitz egiteko ohitura baduzu eta horrela sentitzen bazara erosoan, umeari euskalki horretan egitea positiboa da; gerora ikasiko du bertako euskalkia plazan eta lagunartean. Eta eskolan eta egoera formalagoetan ikasiko du euskara batua.

EL DESARROLLO LINGÜÍSTICO DE TU BEBÉ

Seguramente habrás hablado a tu bebé desde que llegó a tu vida. Esas primeras palabras son muy importantes para su desarrollo lingüístico. La infancia es el período más propicio para el aprendizaje de idiomas. Conviene que tu criatura tenga una relación fluida y continuada con el idioma/los idiomas de casa. Para ello hay que hablarles mucho y bien, lo mejor que puedas, sea en el idioma que sea.

Como es lógico, si no sabes euskera no podrás transmitírselo a tu bebé. Lo más importante ahora es que aprenda bien el idioma/los idiomas de casa. A partir de ahí puedes hacer que el euskera esté presente en su vida a través de la música, el juego, los cuentos, las rutinas, y, más adelante, en la escuela, en su tiempo de ocio y en sus relaciones.

Teniendo en cuenta la realidad social de esta zona, saber euskera le proporcionará multitud de ventajas. Tendrá una mayor capacidad de conocer en profundidad la realidad que le rodea, tendrá más oportunidades de participar en la vida social del pueblo y la comarca, y de ser parte de la comunidad de personas que viven y se relacionan en euskera. Además, podrá ser plurilingüe desde una edad muy temprana, y también le aportará más opciones profesionales. Es una apuesta de futuro.





ETXEKO BERTZE HELDUEK EUSKARAZ (ONGI) EZ BADAKITE EDO IKASTEN ARI BADIRA

Maiz gertatzen da bikotekideak edo etxeko beste helduek euskaraz ez jakitea. Egoera horietan funtsezkoena da euskaraz dakizun horrek umearekin beti edo ahalik eta gehien euskaraz egitea; haurrak euskararekin izanen duen erreferente nagusia izanen zara.

Euskaraz ez dakienaren jarrera oso garrantzitsua da: euskarari tokia egiten ahal dio agurretan, eguneroko errutinetan, kantu eta jolasetan. Dagoeneko euskara ikasten hasia bada, prozesu horretan laguntzen ahal diozu, etxean euskara praktikatzeko eta erabiltzeko aukerak emanez. Egiten ari den esfortzuari balioa ematea dagokizu; laster umearekin praktikatu ahalko du eta honek eskertuko dio.

Gerta daiteke bikotekidearen edo etxeko beste helduen hizkuntza ez izatea ez euskara eta ez gaztelania. Kasu horietan oso gomendagarria da jatorrizko hizkuntza hori umeari transmititzea eta filmak, ipuinak, musika... hizkuntza horretan ere eskaintzea. Horrela umeak familiaren alde horrekin eta beren kulturarekin lotura estuagoa izanen du.

LA PRESENCIA DEL EUSKERA EN CASA, AUNQUE NO LO SEPÁIS (BIEN) O LO ESTÉIS APRENDIENDO

Cualquiera que sea vuestro conocimiento del euskera, es recomendable que este idioma esté presente en el hogar, lo cual se consigue no sólo hablándolo, si no también dándole un lugar en la música, los juegos, los dibujos animados, los cuentos... El idioma entra por los ojos y por los oídos; cuanto más lo escuche y lo vea, más facilitarás que lo aprenda.

En cuanto al uso del euskera en la familia, también puedes ayudar a tu bebé. Si tu pareja u otras personas adultas cercanas lo saben, es importante que se lo hablen. Tú también puedes ir incluyendo saludos y expresiones cotidianas que vayas aprendiendo. Todo ello le ofrecerá a tu bebé un apego y una conexión con dicha lengua. Sin duda, también puedes aprenderlo; infórmate sobre la oferta de aprendizaje de euskera para personas adultas.

Si ya lo estás aprendiendo, ten en cuenta que la práctica te ayudará en ese proceso. La familia, sin duda, puede ser uno de esos espacios a los que sacar provecho y también aprender al arrimo de tu bebé. Se trata de que lo utilices en aquellas situaciones en las que te sientas capaz, y, según adquieras más soltura, vayas aumentando su uso.

Si tu idioma o el de tu familia es un idioma distinto al euskera o al castellano, es muy recomendable que se lo transmitas a tu bebé, así fomentarás una relación más estrecha con esa parte de la familia y su cultura.





EPE LABURREAN HARTU BEHARREKO ERABAKIAK:

Beharbada laster lanera itzuli beharko duzu, eta umea non edo norekin utzi erabaki beharko duzu.

Haur eskolara (0-3 urte) eraman behar baduzu, jakizu gure eskualde guzietan euskarazko eredu eskaintzen dutela. Haur eskoletan oinarri nagusia da haur bakoitzaren erritmoak eta progresioak errespetatzea garapeneko edozein arlotan, baita hizkuntzak eskuratzean ere. Hortaz, haurrak etxetik dakarren hizkuntza izanen da hezitzaileen lanerako abiaburua. Gerora, umearen eskolatzear (3 urte) erabaki beharko duzu. Gure eskualdeetan azken hamarkadotan euskarazko eredu (D eredu) erabat nagusitu da; ibilbide luzeko hezkuntza eredu da; umea euskaraz eta eleaniztasunean hezteko berme gehien ematen duena.

Agian zure umea zaintzaile batekin edo aiton-amonekin geldituko da. Komeni da haiek ere umeari euskaraz egitea, eta, ez badakite, gutxienez euskarari ahalik eta presentzia gehien ematea agurretan, errutinetan, jolasetan nahiz kantuan.

DECISIONES A CORTO PLAZO:

Puede que en breve tengas que incorporarte a tu trabajo y tengas que decidir con quién o dónde estará tu bebé.

Si optas por la escuela infantil (0-3 años), todas las de esta comarca ofrecen la educación en euskera. En todo caso, en esas escuelas tomarán como base el idioma familiar, y a partir de ahí, respetando su ritmos y progresos, irán introduciendo el euskera. Más tarde decidirás sobre la escolarización de tú bebe (3 años). En estas comarcas la gran mayoría de familias opta por la educación en euskera (modelo D); con una larga experiencia pedagógica, es el modelo que más garantías ofrece para que las niñas y niños crezcan en un plurilingüismo que tiene como base el euskera.

Otra opción es que tu bebé se quede con otra persona que se ocupe de su cuidado, o con sus abuelas y abuelos. Si saben euskera, es importante que se lo hablen; si no lo saben, conviene que el euskera esté presente en saludos, rutinas, juegos, música, etc. Cuanto más, mejor.





era.eus



@eranafarroa

